



JARDUERA MEMORIA

EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

2021

 <p>HARRIA ETA HERRIA</p> <h1>KARST</h1> <p>AZAROAK 6 DE NOVIEMBRE DEBA - Zumardia Alameda</p> <p>www.geoparkea.eus #geoparkea</p>	<p>KARST JAIALDIA 2021 - DEBA</p>  <p>Euskal Kostaldeko Geoparkea Geoparque de la Costa Vasca</p>	<p>HITZALDIAK AZOKA HARRI-JASOTZAILEAK HARRI-ZULATZAILEAK IRTEERA GIDATUAK GASTRONOMIA MUSIKA</p> <p>— CHARLAS FERIA LEVANTAMIENTO DE PIEDRA BARRENADO DE PIEDRA SALIDAS GUIADAS GASTRONOMÍA MÚSICA</p>
--	--	---

Aurkibidea

Sarrera	3
1.ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA	4
2.ARDATZA: GEOTURISMOA	9
3.ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA	15
4.ARDATZA: GEOGARAPEN. Komunikazioa eta gestioa	19
5.ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA	27

Sarrera

Pandemiak eragindako ziurgabetasunak markatu du 2021 urtea eta egoera horrek ere, isla izan du Euskal Kostaldeko Geoparkean. Nahiz eta bisitari kopuruan pandemiak ez du eragin handirik izan, izan ere, urte ona izan da eta pandemia aurreko bisitarien zifretara iritsi gara, jardueren antolaketan eta kudeaketan eragina izan du, modalitatearen eta urtearen sasoiaren arabera, batez ere.

Ildo estrategikoak aurreko urteetako berberak izan dira. Ikerketa, dibulgazioa, argitalpenak eta hitzaldiak sustatzea oso lan-ildo garrantzitsua da, eta ikusgarritasun handia ematen digu esparru zientifikoago batean.

Aurten jauzi kualitatiboa eman dugu hezkuntza arautuaren zein arautu gabearen ardatzean. Landa-jarduera ugari antolatu dira herritarrentzat, ingurune naturalarekiko sentsibilizazioan sakonduz. Geoeskolak proiektua Geoparkeako ikastetxeen hezkuntza ibilbidean sartu da, eta ia eskola guztiek txertatu dute beren jardueretan, zailtasunak egon diren arren.

Nautilus Gela Didaktikoak, Deba-Mutriku itsasertzeko pasealekuak eta Historiaurreko Haraneko begiratokiak (HAB) Geoparkearen eskaintza aberasten dute eta orain arte eskaini diren baliabideei gehitzen zaizkie.

Santa Katalina inguruan habitata berreskuratzeko esku-hartze bat burutu da. Datozen urteetan, Biotopoaren barruan dauden udal-jabetzako lur sailetan lanak egiten jarraituko dugu, ekosistemak berreskuratzeko eta mantentzeko dugun zeregina indartzeko.

Karst eta kobazuloen Nazioarteko Urtearen esparruan, “Karst Jaialdia: Harria eta Herria” antolatu dugu. Geoparkearen mezua herritarren artean zabaltzeko modu berritzailea erabili dugu, jai eta parte-hartze giroan, hain zuzen.

Orokorrean, ez da urte txarra izan Geoparkearentzat. Aurreikusita zeuden jarduera asko garatu ahal izan dira, nahiz eta horietako batzuk online egin behar izan diren. Turismoa, batez ere nazioartekoa, ia desagertu egin da, baina Estatuko bisitarien gorakada handia izan dugu. Autonomia-erkidegoak itxita egon diren uneetan, doako bisita gidatuak eskaini dira merkataritza eta hostalaritza sektorearentzat, eta oro har herritarrentzat. Horren helburua izan da: bisita gidatuen programari jarraipena ematea eta esleipena duen enpresari laguntza eskaintzea.

1.ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Lurraren Zientzien eta natura- eta kultura-ondarearen ikerketarekin eta gizarteratzearekin lotutako helburuei erantzun nahi die ardatz estrategiko honek.

Ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoan, itsas ondarean eta kultura-ondare ukiezinean jartzen du arreta. Ardatz horretan kokatzen da, halaber, ingurumen-hezkuntzako eskaintza koordinatua garatzeko helburua, Euskal Kostaldeko Geoparkea hainbat publikorentzako interesgune bihurtu dadin, batez ere eskola-eremuan.

1.1 - ONDARE ARKEOLOGIKO ETA HISTORIAURREKO ONDAREAREN IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

Ikerketarako laguntzen deialdiaren barruan, Josu Narbarte eta Eneko Iriarteren "*Hara non mendi maiteak! Hara non diran zelaiak!*" proiektua garatu da, emaitza oso onekin, azken [txostena deskargatu hemen \(pdf\)](#). Txostena Geoparkearen webgunean kontsulta daiteke.

2021ean 2022-2023rako deialdi berria egin da eta bi proiektu hautatu dira:

- Ibaien fauna-aniztasuna eta ibai-isolamenduaren efektua aztertuko duen "*Diversidad faunística en los ríos del Geoparque: efecto del aislamiento fluvial*" proiektua. Aitor Larrañaga UPV-EHU.
- "*Konkresioak Deba eta Mutrikuko Flysch Beltza taldean: tipologia, eraketa-mekanismoak eta kontrolak*" Luis Miguel Agirrezabala, UPV-EHU.

Bestalde, **Narvaezen ammonite-bildumaren bateratzea** lorpen handia izan da. Mikel López-Horgue paleontologoarekin batera, Narvaezen bildumako ammonite guztiak Mutrikuko biltegi berrira eraman dira, eta bertan espezie eta familien araberrako lehen sailkapena egin da. Bateratze hori aurrerapauso handia da etorkizunean bildumaren ikerketa eta kontserbazioa bermatzeko.

Espainiako Petrolio Geologo eta Geofisikoen Elkartearen (AEGP) eta Energiaren Euskal Erakundearen baliabide geologikoen atalarekin batera, **Zumaiako Petrolio putzuari buruzko azterketa bibliografikoa** egin da ([dokumentazioa PDF \(gazteleraz\)](#)). Aurtengo urtarrila eta martxoa bitartean eraman da aurrera gai oso interesgarri eta ezezagun hau.

Urte osoan zehar, lehen koordinazio-bilerak eta kontaktuak egin dira Geoparkean lan egiten duten espeleologo-taldeekin. Lehenengo kontaktu horien helburua Geoparkean esplorazio espeleologikoa modu koordinatuan egitea da. Testuinguru horretan, azaroan **Geoparkearen espeleologiako I. jardunaldiak** antolatu ziren Mutrikun. Jardunaldi horietan jende asko bildu zen, eta urrats garrantzitsua izan zen etorkizuneko proiektuak garatzeko.

Azaroan [IUGSen International Commission on Geoheritage bilera](#) antolatu da Zumaian. Bertan izan da IUGSeko idazkari nagusia. Bileran horretan, konpromisoa eta babesaren lortu dira 2022an Geoparkean egingo den “The First 100 IUGS Global Geosites” nazioarteko kongresua antolatzeko.

Interes geologikoko puntuen inbentarioa eguneratu da. Geoparkearen Interes Geologikoko Puntuen Inbentarioa 2012an egin zen, eta urteen poderioz hura eguneratzeko beharra ikusi zen. Leizaran enpresa kontratatu da landa-lana Zuzendaritza Zientifikoaren zuzendaritzapean egiteko eta Geoparkean 10 interesgune gehiago inbentariatu dira, gehienak karst edo kobekin lotutakoak. Eguneratze horretarako erabilitako metodologia aurrekoaren berdina izan da. Datorren urteari begira, dokumentu berri bat prestatuko da aurtengo berrikuntzekin, eta etorkizunera begira, udal bakoitzarekin batera ikusiko da interesgune bakoitzak zer potentzial duen eta, ondorioz, zer garapen izan dezakeen. Gauza bera gertatzen da Geoparkeko eragin-eremuko udalekin ere.

Ermittia eta Praileaitz haitzuloetan egindako ikerketaren jarraipena egin da.

HAB. Historiaurreko bailara

Debako Udala eta Debegesarekin batera, HAB Historiaurreko bailara proiektuaren lehen faseari ekin zaio, lantaldearen koordinazioarekin, edukien definizioarekin, euskarrien kokapenekin eta, oro har, 2022an exekutako ahal izateko plangintza osoarekin.

1.2 - ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK

Geoparkean egindako lanari esker, argitalpen, bisita, kongresu eta konferentzien urte oparoa izan da 2021a, formatu presentzian zein onlinean.

Argitalpen zientifikoak:

- «*Geoparques de España: factores clave de su implantación, retos y consideraciones geológicas para su futuro crecimiento óptimo.* Luis Carcavilla eta Asier Hilario. DeReMetallica. Apirila
- «*Posets pluton. A geochronological piece in the puzzle of the Axial Zone of the Pyrenees*». Geological Magazine. Esteban et al. Maiatza
- «*Spanish UNESCO Global Geoparks: an overview of 20 years growing Daily*». ProGeo 2021 International conference, Segovia. Ekaina
- «*Analysis of cliff instabilities of the Basque Coast Geopark (Gipuzkoa)*». Notes for a respectful management in areas of high geological value. Geo-Temas 18. 27-92/23-08. Uztaila
- «*Contribution of orbital forcing and Deccan volcanism to global climatic and biotic changes across the Cretaceous – Paleogene boundary at Zumaia*», Gilabert et al. Geology. Geological Society of America. Iraila

- «*Research and Geoconservation of the Albian edicgiant «ammonites Collection in the Basque Coast UNESCO Global Geopark»*». Asier Hilario et al. Geoconservation research. Azaroa
- «*Arte en la oscuridad*» atala idaztea «*Karst y cuevas en los Geoparques Españoles*» libururako.

Bisitak:

- Bi aldiz izan ditugu EHUko ikasleak Geoparkean. Geoparkearen kudeaketa orokorra azaldui zaie, eta bereziki Algorri ibilbidearen azpiegitura. Martxoa - Azaroa.
- Geoparkeko Karsta Donostiako Plus 55 ingurumen parte-hartzaileei erakutsi zaie Itziar – Arbil – Lastur 3 irteera gidatuetan. Maiatza - Ekaina.

Biltzar, webinar eta konferentzietan partehartzea:

Urte osoan zehar, kongresuetan, webinarretan eta hitzaldietan parte hartu dugu. Horien artean aipatzekoa da X ProGeo nazioarteko kongresuaren irekiera hitzaldia.

Hauk dira urtean zehar egindako hitzaldiak eta orain arte hartutako foroak:

- “*Coastal Geoparks*”. Master MER Aquarium – UPV/EHU. Urtarrila
- “*Geological Heritage and Unesco Global Geoparks*”. Americas’ Geoheritage simposium. Otsaila
- “*El espectáculo detrás de las montañas*” en Betikaste Tolosa. Otsaila
- “*Geotourism, geoconservation and Geoparks.*” Pangea European Master Erasmus. Apirila
- “*Geological Heritage and Unesco Global Geoparks.*” X Progeo International conference. Segovia. Opening lecture. Ekaina
- “*20 years of Spanish Geoparks: X Proveo International conference*” Segovia. Junio
- “*Pirinioak, mendien ikuskizun geologikoa*” ZientziaKutxa Jardunaldiak. Ekaina
- “*Pieces of art from the deep time*” Acto de inauguración Hondalea de Cristina Iglesias. UPV-EHU Udako ikastaroak. Ekaina
- “*Patrimonio Geológico y Geoparques. Una visión global*” Kolonbiako zerbitzu geologikoak antolatutako *Promoviendo Geoparques Mundiales* jardunaldietan. Uztaila
- “*Geoconservation and local development*” Unesco Montevideo y UNESCO El Cairok antolatutako jardunaldietan *Unesco Global Geoparks and Innovative Economy «webinar»*. Iraila
- “*Communication strategy of Basque Coast UGGp*” *Management challenges in internationally designated areas* online saioaren barruan, Koreako Unesco bulegoak antolatuta.

1.3 - INGURUMEN HEZKUNTZA: GEOESKOLAK

Inguruneko sentsibilizazioa eta prestakuntza, Nazioarteko Egunak eta herritarren zientzia dira ardatz honen helburuak. Geoparkea herritarrengana hurbiltzea da arrakastaren gakoa, eta horretarako, hainbat ekimen propio bultzatzen dira eta beste eragile batzuekin elkarlanean aritzen da beste hainbatetan.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen [Naturaldia](#) zirkuituan bi saio eskaini genituen Geoparkean. Deban, "Dehesa, El escondite del Lince" filma proiektatu zen eta Zumaian, berriz, "Out of plastic".

Ekimen hau Aldundiak antolatzen du zuzenean, Gipuzkoan dituen 5 egoitzekin batera. Geoparkea da egoitza horietako bat, eta, beraz, Aldundiarekin kolaboratzen du ekitaldiaren antolakuntzan.



- Aurten ere, uztailean, Itsas Gelaren **Zero zabor urak kanpainaren** barruan, Mater itsasontzia Mutrikuko portura etorri da.
- Ornitho Euskadik sustatutako Parke eta Lorategietako Hegaztien Neguko Erroldaren II. Kapituluaren parte hartu da.
- Surfrider Fundazioaren **OSPAR kanpaina** babestu dugu. Geoparkeko bi hondartzatan burutu da, Inpernupen eta Burumendin.
- Kostaldeko garbiketa Coca Colaren eskutik. "Mares circulares" kanpainaren barruan dago garbiketa, eta azaroan egin zen.

GEOESKOLAK

2020an pandemiagatik izandako geldieunen ondoren, aurten Lasturko paisaia karstikoa lantzeko gure proposamen didaktikoa probatzeko eta fintzeko aukera izan dugu. Lan hauek ekainean egin ziren eta 2021-22 ikasturterako eskaintza zabaldu dugu Geoparkeko zentroen artean.

Bestalde, Mutrikuko Nautilus Ikerketa eta Didaktika Gela berria ireki da, eta horrek aukera ematen du Lehen Hezkuntzako 1. mailarako eskaintzen den proposamen didaktikoa modu egokiagoan eskaintzeko.

Geoeskolak programaren barruan Geoparkearen hiru proposamen didaktikoak eskuragarri daude eta 2021-22 ikasturtean 500 ikaslek parte hartzea espero da.

Gainera, Zumaiaiko Institutuan STEAM metodologian oinarritutako programa bat garatzen lagundu dugu, biotopoaren inguruko zelaiak, larreak eta landaredia aztertzeko. Emaitzak ikasturtearen amaieran azalduko dira, eta bi urteko proiektua izatea nahi da.



ARAUTU GABEKO HEZKUNTZA JARDUERAK

Eskolekin ez ezik, publiko orokorrari zuzendutako hezkuntza-jarduerak ere antolatu dira aurren, hala nola:

- Biodibertsitateari buruzko bi **BIOTOP** topaketa egin dira. [Lehenengoa](#), ekainean, Zumaiaiko bokaleko ekosistemak ezagutzeko. [Bigarrenak](#) Mutrikuko Olatz ibarreko ondoak izan ditu ardatz. Horrelako ekimenak aprobetxatu ditugu Ornitho eta Natusfera bezalako plataformak ezagutarazteko, herritarrek naturari buruzko datuak biltzeko moduak ezagut ditzaten.
- Lynn Margulisen heriotzaren 10. urteurrena betetzen den urtean, Geoparkeak Zumaiaiko Udalak antolatutako Symbiotic Earth filmaren proiektioa babestu du, eta azpigituluak euskaratzen lagundu du.



2.ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa bultzatzeko eta sustatzeko hainbat ekintza egin dira, betiere iraunkortasunaren eta ekoturismoaren ikuspegitik.

Ekainean Eusko Jaurlaritzako [Turismo arloko ordezkarien bisita jaso](#) genuen, non Javier Hurtado Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak, Goyo Zurro Turismo eta Ostalaritza zuzendaria eta Daniel Solana BasqueTourreko zuzendariak hurbilagotik ezagutu ahal izan zuten Geoparkea eta bere kudeaketa eredua.



2.1 - PRODUKTUAK ETA BALIABIDEAK

Ekoturismoa Geoparkearen garapen turistikoaren erreferentzia-esparrua da. 2019az geroztik, helmuga Espainiako Ekoturismo Klubaren parte da, eta klubarekin bat egiten duen Euskadiko lehen helmuga da. Elkartze horrekin 19 entitate laguntzaile ere atxiki zitzaizkion 2019an. 2020an, entitate laguntzaile izan nahi zuten hainbat enpresen eskaerak jaso ziren. 2021ean, ebaluazioak egin dira eta [6 agente sartu dira Geoparkearen Erakunde Laguntzaileen sarean](#). Une honetan, 23 enpresak osatzen dute erakunde laguntzaileen sarea.

Ekoturismo Klubaren lanari esker, sustapen-ekintzak egin dira azoketan, aldizkarietan, produktuaren merkaturatzean, etab. 2021eko otsailean, stand propioarekin parte hartu genuen Alemaniako FVW azoka birtualean. Herrialde horretako 2.300 bidaia-agentziak baino gehiagok hartu zuten parte, eta Geoparkearentzat lehen esperientzia izan zen online azoka batean. Martxoan, Gasteizko III. Ekoturismo Foroan parte hartu genuen, eta Euskadiko Ekoturismo Sarearen bileretan parte hartu genuen, modu aktiboan. Maiatzean, La Japan Ecotourism

Society aldizkariaren parte izan ginen, Ecoturismoari eskaintako edizioan. Aldizkari horretan Espainiako Ekoturismo Elkarteari eta haren helmugei buruzko artikulu luze bat azaldu zen.



Gainera, ekoturismoa sustatzearen aldeko apustua egiten jarraitzen da, estatuko azoketan sustapen-ekintzak eginez, hala nola Mad Bird Fair, Naturcyl edo Nature Watch eta marketin digital bidez. Espainian ekoturismoa sustatzen da soyecoturista.com webgunearen bidez, eta ekintza zehatzak egin dira Turespañarekin lankidetzan. Adibidez, Kluba eta hari atxikitako helmugak sustatzeko ekintza bat egin da Alemaniako merkatura Outdooractiven. 2021eko [Ihesaldien Katalogoa](#)ren ekimena errepikatu da, sustapenaren eta merkaturatzearen atalean zehazten dena.

2.2 - BISITA GIDATU TURISTIKOAK

Geoparkeak bisita gidatuen programa zabala du eta urte osoan zehar eskaintzen dira, egunero aste santutik azaroko zubira bitartean eta asteburuetan neguko hilabeteetan. Eduki geologiko, natural eta kulturala duten bisiten bidez, Geoparkeak aisialdiko programa bat gauzatzen du, ondarea zabaltzeko helburu argiarekin.

2021ean 16 motatako 1.600 bisita programatu dira guztira. Urte hasieran ohiko bisita gidatuen programa planteatu zen, pandemiaren bilakaeraren arabera aldaketak izan zitzakeela jakin arren. Otsailean eta martxoan asteburuetan bisita gidatuen programari eutsi zaio, hiru herrietan doako bisitak eskaini baitira bertakoei zuzenduta, konfinamendu perimentaleko egoeran baikuenden. [Doako bisitak](#) egin dira herritarrekin, baita [ostatu-enpresekin](#), [saltokiekin](#), [turismo-zerbitzuekin](#), [jatetxeekin](#) eta [tabernekin](#) ere.

Martxoaren amaieran, bisita gidatuen denboraldia aurkeztu zen, eta oso harrera ona izan zuen, nahiz eta murrizketa asko izan. 2020an hartutako neurriekin jarraitu da aurtengo jardueretan: maskara nahitaez erabili beharra, materiala ez partekatzea, materiala eta ekipokak desinfektatzea, etab. Jarduera mota bakoitzeko edukierak mantendu dira, desberdinak oinez egindako jardueretan eta itsasontziko jardueretan, Eusko Jaurlaritzak emandako neurriei uneoro jarraituz.

Hiru turismo-bulegoek online erreserbak bultzatzen jarraitu dute. 2021ean 19.389 pertsonak parte hartu dute bisita gidatuen programa ofizialean, eta horrek % 53ko igoera ekarri du 2020arekin alderatuta. Datuak oso positiboak dira, kontuan hartuta 2018ko pertsona-kopurua lortu eta gainditu dugula, hori izan baitzen urterik onena bisitari kopuruari dagokionez.

Estatuko mugikortasunak mugak izan ditu, eta, beraz, Aste Santuan, adibidez, bisitariak bertakoak izan ziren, Autonomia Erkidegotik etorritakoak. Nazioarteko mugikortasunari dagokionez, mugatuta dago oraindik, eta, beraz, Estatutik etorritako bisitarien kopurua nabarmen igo da aurrean: % 80 Zumaian, % 76 Mutrikun eta % 40 Deban. Madril, Valentzia eta Kataluniatik datoz nagusiki.

2019-2020-2021 aldiko bisita gidatuen kopurua

	2019	2020	2021	% 2019-2020	% 2020-2021
Urtarrila	41	65	6	59%	-91%
Otsaila	297	235	196	-21%	-17%
Martxoa	656	33	651	-95%	1873%
Apirila	1.575	-	1.748	-	-
Maiatza	647	-	309	-	-
Ekaina	1.662	594	1.179	-64%	98%
Uztaila	3.433	3.616	4.021	5%	11%
Abuztua	7.081	6.052	7.773	-15%	28%
Iraila	1.581	1.544	2.038	-2%	32%
Urria	869	320	1.149	-63%	259%
Azaroa	166	-	169	-	-
Abendua	293	87	150	-70%	72%
GUZTIRA	18.301	12.546	19.389		

Bisita bakoitzaren ondoren, bisitariak gogobetetze-inkesta bat jasotzen du online; bisitaren iritzi orokorra, jasotako tratua, giden azalpenak, erreserba-prozesua eta abar ebaluatzen. Tresna hori funtsezkoa da Geoparkearentzat, inkestak aztertu ondoren etengabeko hobekuntza-prozesuak ezartzeko aukera ematen baitigu. 2021ean 1.354 inkesta jaso dira guztira (abenduen 10ean), aurreko aldi baino % 56 gehiago. Batez besteko balorazioa 10etik 8.6koa da, eta nota oso altuekin ondoen baloratutako alderdiak jasotako tratua (9.3 puntu), erreserba-prozesua (9.1 puntu) eta giden azalpena (9.0 puntu) dira.

Inkesten laburpena

Baloratutako itemak	Balorazioa (1-10)
Iritzi orokorra	8.6
Erreserba-prozesua	9.1
Gidaren azalpenak	9.0
Prezioa	7.6
Baliabideen balorazioa	8.0
Jasotako tratua	9.1

Taldeko bisiten kudeaketari dagokionez, Geoparkeak helburu berberak izaten jarraitzen du arlo honetan: Geoparkea sakon ezagutzeko zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea, motibazio espezifikoa dituzten talde berriak erakartzea eta barnealdeko produktu eta zerbitzu turistikoetan interesa zabaltzen saiatzea.

Taldean 65 eskaera inguru jaso dira web orriko taldeen formularioaren bidez. Aurreko urteetan egin dugun bezala, jaso diren eskola-taldeen neurrirako bisita-eskaerak Algorri Interpretazio Zentrori bideratu dira, aisialdi orokorreko taldeak entitate laguntzaileetara bideratu dira eta Geoparkeak zuzenean kudeatu dituzten talde espezializatuak edo lurraldea sakon ezagutzeko, Geoparkearen kudeaketa-eredua ezagutzeko eta abarretarako interes espezifikoa dutenak.

Algorri Interpretazio Zentroaren jardura erabat mugatuta egon da, bai 2020an, bai 2021ean; izan ere, bere zerbitzuak hezkuntzaren eremura zuzenduta daude batez ere, eta eskolek irteera guztiak eten dituzte pandemian zehar. Nautilus Interpretazio Zentroak, aldiz, dinamika berreskuratu du, pandemia aurreko zenbakiak gaindituz.

Interpretazio zentroetako bisitariak

	2019	2020	2021
Algorri	19.904	5.033	6.339
Nautilus	1.761	964	1.918

2.3 - SUSTAPENA ETA MERKATURATZEA

Aurten turismo-sustapena oso mugatua izan da, bizitzen ari garen egoera dela-eta. Euskal Kostaldeko Geoparketik, Basquetour eta Gipuzkoa Turismoarekin elkarlanean jarraitzen dugu, eta jardura eta kanpaina txikiak egin ditugu lurraldea Geoparketik zuzenean sustatzeko.

Egin ahal izan diren **azoketara materiala bidali** dugu, adibidez, Fiturrera. Euskal Kostaldeko stand-era liburuxkak bidali ziren, baina Geoparkeak ez zuen bere stand-ik izan, aurreko urteetan UNESCOren Munduko Geoparkeen sarearekin egin zuen bezala. ITB Berlin azoka bertuala izan zen eta Geoparkeen Sarearen ordezkaritza egon zen bertan.

Geoparkearen **sustapen-materialak** eguneratuta mantendu dira; alde batetik, Geoparkearen irudi-liburuxka; euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez, eta, bestetik, euskara-gaztelania bisita gidatuen programaren urteko liburuxka ([deskargatu hemen](#)). Azken hori berriz diseinatu da, egiten zen liburuxka zertxobait zaharkituta geratu baitzen. Horregatik, bisita-liburuxka mapa formatuan diseinatu da, eduki nagusiari eutsiz, baina bisitariari irakurketa erraztuz. Mapa formatuak, laburpen-koadroak eta ikonografia berriak, bisita bakoitza zertan datzan eta zein udalerritan eskaintzen den erraz identifikatzen laguntzen du.



Denboraldiaren hasieran bisiten liburuxkak bidali ziren Euskadiko turismo-bulego nagusietara eta Donostia, Bilbo eta Arabako hoteletara. Gainera, beti bezala, turismo-ostatu eta -zerbitzuei jakinarazten zaie turismo-bulegoetan eskuragarri dutela materiala, eskatu nahi badute beren enpresetan eskura izateko.

Ekainean, uztailan eta abuztuan sustapen berezia egin da bisitariak bultzatzeko. Geoparkearen erakunde laguntzaileek % 5eko deskontua dute bisitaldi gidatuen programan, urte osoan zehar, bezeroei eskaintzeko. Aurten, sektorearen egoera kontuan hartuta, deskontu hori % 10era zabaldu da. Gainera, HUB Gipuzkoarekin koordinatutako kanpaina baten bidez, uztailan Donostiako ostatuetarako Geoparkea aurkeztu zen eta deskontu-kode bat eskaini zitzaizen produktua bezeroei eskaini nahi zieten ostatuei. Guztira 9 ostatuk eskatu zuten deskontu-kodea, eta irailera arte egon zen martxan.

Aurrez aipatu bezala, gogoratu behar da Geoparkea Ekoturismo Klubeko kide aktiboa dela 2019az geroztik, eta horregatik merkaturatze-gaietan lan egiten dela. 2020ko probaren ondoren, non ihesaldien katalogo bat egin zen, baina salmentarik izan ez bazen ere, bisitarien

artean kontsultak eta interesa egon ziren, aurten ihesaldien katalogo berri bat egin da, ekaina eta abendua arteko data zehatzekin. Geoparkearen kasuan, 2 ihesaldi paketatu dira, bata irailean eta bestea urrian, bezeroari pakete oso bat eskainiz: 3 gau ostatu eta gosaria landetxean, ongietorri pack bat eta gutxienez 3 edo 4 bisita era pribatuan edo taldeka bertako gida batekin.



Agentziekin merkaturatzeari dagokionez, aldaketa bat egon da Gipuzkoako Turismo Bulegoaren kudeaketan. Bulebarrean dagoen bulegoa utzi dute eta dagoeneko ez da bisitariei Gipuzkoari buruzko informazioa eskaintzen bertan. Aurretik, geoparkeari buruzko informazioa ematen zen, eta Equinoccioaren bidez, bisita gidatuak zuzenean saltzen ziren bulegoan; gaur egun, ez da aurrez aurreko aukera horrekin lan egiten. Hub Turismo Gipuzkoa-ko kideak gara, eta, beraz, hainbat gairen inguruan antolatu dituzten prestakuntza eta saioetan parte hartu dugu, hala nola, marketin turistikoa, turismorako teknologia disruptiboak, helmuga turistiko adimendunak, berritzeko tailerrak eta abar. Horiei esker, teknologia eta eduki berriak eguneratuta ditugu eta Geoparkerako ideia berriak atera ditzakegu.

Euskadi Turismo atarian jarraitzen dugu Esperientzia Top gisa, baina salmenta ez da beste urte batzuetan bezala Norte Sur Incoming bidez egin, baizik eta www.geoparkea.eus webgunerako esteka zuzena sartu da eta erreserba bertan erreserbatu daiteke. Beraz, ezin izan dugu jakin zenbat bisita iristen diren atari honetatik.

3.ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

3.1 - IBILBIDEAK ETA BIDEZIDORRAK DISEINATZEA

Geoibilbideak oso tresna baliotsua dira dibulgaziorako. Geoparkeak, gaur egun, [6 ibilbidek osatutako ibilbide-sare bat](#) du, baina sare hori zabaltzea eta barnealdera eramatea izango litzateke helburua.

Itziar, Andutz, Lastur eta Lizarreta inguruko alternatibak aztertzeke hastapen-lanak egin dira. Interpretazio-edukiak hautatu ditu, lurzatiaren jabeak ezagutu ditu eta proiektua eta egikaritze-faseak Itziar eta Debako udalekin partekatu ditu.

Datozen urteetan, finantzaketaren arabera, helburua da lurren jabeekin hitzarmenak sinatzea eta seinaleetika zehazten hastea, epe laburrean egungo sarean beste 3 georuta gehitzeko asmoarekin.

Bien bitartean, beste aukera batzuk sortu dira ibilbideak teknologaren bidez interpretatzeko. European Atlantic Geotourism Route proiektuaren barruan, Geotours app-aren bitartez 3 ibilbideen diseinuan eta aplikazioan integratzeko prozesuan parte hartu da.

Orain arte euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez zeuden Georuten [pdf-ak frantsesera itzuli](#) dira.

3.2 - LURRALDEA INTERPRETATZEKO AZPIEGITURAK

2020aren amaieran eta 2021aren hasieran, **Nautilus ikerketa- eta didaktika-gelaren** diseinu eta edukiaren koordinazio orokorra egin da. Gune hau azpiegitura garrantzitsua da ikerketa zientifikorako eta Geoeskolak hezkuntza programarako.

UPV/EHUko ikertzaileen panel guztien edukiak eta aurre-diseinua egin dira, eta testu guztiak idatzi dira. Gune honen [inaugurazioa](#) maiatzean egin zen, Mutrikuko Udalak eta Euskal Kostaldeko Geoparkeak Narvaez eta bere emaztea omendu dituzte urte hauetan egindako lanagatik eta bilduma lagatzeagatik. Ekainean [ate irekien eguna](#) ospatu zen.



Bestalde, Deban **HAB proiektuaren barruko bigarren begiratokia jarri da**, historiaurrearen harana. Bigarren fasean, 2022aren hasieran, jada instalatuta dagoen egurrezko egiturari interpretazioa gehituko zaio.

3.3 - NATURA-INGURUNEAREN ETA, ORO HAR, ONDAREAREN BABESA ETA KONTSERBAZIO

Babesaren eta kontserbazioaren arloan funtsezko hainbat lan egin dira:

- **Narvaezen fosil bilduma bateratzea.** Mikel López-Horgue paleontologoarekin batera, Narvaez bildumako amonite guztiak Mutrikuko biltegi berrira eraman dira, eta bertan espezie eta familien araberako lehen sailkapena egin da. Bateratze hori aurrerapauso handia da etorkizunean bildumaren ikerketa eta kontserbazioa bermatzeko.
- Ekainean, **biotopoko iknofosilak aztertze eta biltzeko kanpaina** bat egin zen. Jasotako ale guztien artean Paleodictyon iknofosilaren ale ikusgarri bat nabarmendu behar da. Algorri interpretazio zentroan utzi genuen.
- **Debako Septarien bilduma eskuratzeko proiektuaren lehen zirriborroa** idatzi da eta Eusko Jaurlaritzaren natura-ondarea babesteko diru-laguntzetara aurkeztu da.
- GFAko teknikariekkin batera, **Biotopoaren erabilera publikoa eta laginketa geologikoak arautzen** dituen Foru Agindua idazten parte hartu da.
- Biotopoen arau-panel berriak jarri dira. Diseinua eta testuak landu ditu. Kokapen zehatza eta GFAko teknikariekkin koordinatua.
- **Debako Santa Katalina inguruko habitata lehengoratzeko obrak egitea.**
Deba eta Zumaia arteko biotopoen natura lehengoratzeko lanak egin dira Debako Udalak dituen lurretan. Debako Udalak GFA diru-laguntza jaso zuen eremu horretarako proiektua idazteko.

Proiektuaren idazketa kontratatu zen, eta behin idatzita, Geoparkeak proiektuaren lehen fasea gauzatu du. Geoparkeak proiektu hori zuzendu du, eta finantzaketa-aukerak, lur-eremua hautatzea, diru-laguntzak izapidetzea, enpresak bilatzea eta abar aztertu ditu.



[80 zuhaitz inguru sartu genituen](#), Aldundiarekin lankidetzan, besteak beste, arteak, haritzak eta gurbitzak. Horietaz gain, aurreko urteetan landatu eta galdu edo kaltetu diren zuhaitzak ere berritu dira. 20 laguneko talde batek parte hartu zuen jardueran, oso talde txikia, murrizketen ondorioz plaza kopurua mugatu behar izan baitzen.

- 2018an hasitako ildoari jarraituz, hitzordu berri bat jarri zen abian Itziarko Galarreta inguruan **Biotopoko heskaiak zaharberritzeko lanak osatzeko**. Jardunaldiari Zuhaitz Egunaren formatua eman diogu eta adin ezberdinetako boluntarioekin egin da. Aurten egindako lanarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lursaila osatu da.
- Itziarren, Aranzadi Zientzia Elkartek Itziarko Auzo Udalarekin batera bultzatutako **Aintzira Sareko anfibioentzako puztu bat egokitu da**. Ekimen hau bultzatu dugu Aranzadirekin eta Itziarko udalarekin harremana mantenduz eta proiektuaren bideragarritasuna bermatuz. Bien bitartean, eskolekin harremanetan jarri ginen, proiektua osatzeko haien iritzia jasotzeko.
 - Debako Luzaro ikastolako ikasleek egindako [bideoa](#).



- Era berean, Zumaiako Udalarekin elkarlanean, **Gorostiagako haranak lehengoratzeko aukerak baloratu** dira, azken urteotan berreskuratze horiek egiteko aurkeztu diren proposamenak bilduz eta aztertuz.
- Gipuzkoako azpiegitura berdeko **Andutz-Itziar industrialdea hobetzeko proiektua idazten** ari den enpresarekin elkarlanean ari gara.

4.ARDATZA: GEOGARAPEN. Komunikazioa eta gestioa

4.1 - PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA OROKORRA

2021ean lan-taldea mantendu da, bai staff lanpostuak, bai lankidetzak.

Geogarapeneko lan taldea: langile propioak

- **Gerentziak** bere gain hartu ditu Geoparkearen kudeaketa orokorreko eta Geoparkeen Europako eta Munduko Sarean (EGN/GGN) eta CNEGen (Geoparkeen Espainiako Batzordea) ordezkagarritasuneko funtzioak. Topaketa horiek birtualak izan dira, egoera kontuan hartuta.
- **Bisita gidatuen dinamizatzaila.** Bisita gidatuen programa aurreikusita bezala mantendu ahal izan da, bizi izan ditugun murrizketak gorabehera. Dinamizatzaila bisitak kudeatzeaz arduratu da, eta, horrez gain, doako bisitak antolatu eta koordinatu ditu herritarrentzako, turismo-enpresentzat eta abarrentzat. Bisita gidatuetan parte hartu duen pertsona kopurua pandemia aurreko zifretara iritsi da eta, beraz, koordinazio- eta likidazio-lanarekin jarraitu du.

Kanpo asistentziak:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunetan jarraitu du, EGN eta GGNren ordezkari izatearekin batera. IUGSko (Unión Internacional de Geociencias) ondare geologikoaren batzordearen lehendakaritzaren lehen urtea batzordeak Zumaian egindako bilera batekin amaitu da.
- Komunikazioari, prentsa-oharrak egiteari, webgunea eguneratzeari, Newsletterri eta abarri buruzko aholkularitza emateko **komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea**. Aurreko urteetan bezala mantendu da.
- **Community manager** (sare sozialen kudeatzailea) @Geoparkea estrategiarako Facebook, Twitter eta Instagram sare sozialetan. Aurreko urteetako mailetan ere mantendu da.
- **Ingurumena eta iraunkortasun koordinatzailea**, Naturagune Babestuetako (ENP) jarduerak eta ingurumen-hezkuntzako ekintzak koordinatzeko. Jarduera zertxobait berreskuratu da eta, beraz, aurreko urteetako mailetan mantendu da.
- **Kontabilitate- eta lege-aholkularitza** erakundearen eguneroko kudeaketarako.

4.2 - EGN, GGN ETA UNESCO GEOPARKEEN EUROPAKO SAREAREN HARREMANAK

Geoparkearen nazioarteko ordezkaritza eta ikusgarritasuna oso garrantzitsua da Geoparkearentzat eta Euskadi-Basque Country markarentzat. EGNren eta GGNren topaguneak birtualak izan diren arren, online jarduera asko izan dira urtean zehar.

EGNren eta GGNren bilerak on line izan dira aurten. Udaberriko meeting europarra Kroaziako Papuk Geoparkeak antolatu zuen udaberriean eta Munduko GGN Sarearena abenduan izan zen eta Jeju Koreako Geoparkeak antolatu zuen. Bertan ebaluazioen emaitzak eman ziren, besteak beste.



Montevideo eta UNESCO El Cairok antolatutako UNESCO Global Geoparks and Innovative Economy webinarrean *Geoconservation and local development* hitzaldia eskaini genuen.

[UNESCOn Geoparkeen 3 hizkuntzatan egin den bideoa](#) egiten lagundu dugu.

Ebaluazio-misioak. Aurten ebaluatzaile bakoitzak bi misio egin ditu. Txostenak egin dira eta UNESCOra bidali dira.

- Asier Hilario: Cuilcagh Geoparkea eta Gullion Mourne Strangford hautagaia, Irlanda.
- Leire Barriuso: Napo Sumaco eta Volcán Tungurahua hautagaiak, Ecuador.

Geoparke berrientzako aholkularitza eta laguntza. 2021ean hainbat proiekturekin harremanetan egon gara gure laguntza eta aholkularitza eskaintzeko:

- Geoparke izangaia: Ortegai lurmuturra (Galizia).
- Volcanes de Calatrava (Ciudad Real)
- Cajon de Maipo (Txile)
- Guadalorceko Geoparkea Proiektua

ESPAINIAKO GEOPARKEEN SAREA

Foroaren bileretan eta foroetan parte hartu dugu, Geoparkearen izenean, eta lan hauek egin ditugu:

- “Hablemos de Geoparques” jardunaldi birtualen edukien diseinua.
- *Espainiako Geoparkeek 20 urte* hitzaldia jardunaldien inaugurazioa.
- Espainiako geoparkeen Karst and Caves mapa interaktiboren edukiak prestatzea.
- Geoparques.es webgune berriaren story telling geologikoa egitea.
- Geoheritage. A global view from UGGP 'ive' hitzaldia Subbeticas geoparkearen Erasmus jardunaldietan.
- «Arte en la oscuridad» atala idaztea «Karst y Cuevas en los Geoparques Españoles» libururako.

Ekitaldi hauetan gara:

- [Espainiako foroaren Jardunaldi Irekiak](#) (Maestrazgo) gure Geoparkeari buruzko hitzaldi batekin



- 4 hitzaldi Espainiako Geoparkeen Foroak antolatutako **Hablemos de Geoparques jardunaldi birtualetan**. Aurten, 2021 hilean behin jardunaldi bat egin da gai desberdinak jorratuz. Asier Hilariok zientziari buruzko webgunean parte hartu zuen, Leire Barriusok turismoan, Nerea Gazteluk tokiko garapenean eta Miguel Loitxatek zientziaren komunikazioan. Webinar guztiak grabatu ziren eta horietara [sar daiteke](#).

JORNADAS VIRTUALES "HABLEMOS DE GEOPARQUES"
Jornadas organizadas por el Foro de los Geoparques Mundiales de la UNESCO en España



25 DE MAYO 2021
Todo lo que siempre quisiste saber de los Geoparques

29 DE JUNIO DE 2021
Geoparques: Territorios de Ciencia

20 DE JULIO 2021
Respira Geoparques: Geoturismo cerca de casa

22 DE SEPTIEMBRE 2021
Aprender es divertido en un Geoparque

19 DE OCTUBRE 2021
Geoparques y su patrimonio geológico

16 DE NOVIEMBRE DE 2021
Los Geoparques: Herramientas de construcción masivas

  **GEOPARQUES**
ESPAÑA

IGCP. INTERNATIONAL GEOSCIENCE PROGRAM

3 proiektu baloratu dira IUGS eta UNESCOren International Geoscience Programaren 2021eko deialdirako batzar zientifikoko kide gisa. IGCP 731: IUGS Geological Heritage Sites proiektu handiaren zuzendaritza nagusia. Proiektu honetan 40 zientzialarik eta 20 lurralde eta Geoparke Unescon murgildurik daude. Proiektuaren helburu nagusia nazioartean interes geologiko handiko lekuak izendatzea da. Lehen urratsen ondoren, lehen 100 IUGS Global Geosites 2022an aurkeztuko dira Donostian antolatuko dugun nazioarteko kongresu handi batean.

IUGS. International Commission on Geoheritage

2020an Asier Hilario IUGSeko International Commission on Geoheritage erakundeko presidente izendatu ondoren, 2021ean lan handia egin da batzar garrantzitsu horren lehen oinarriak adostu eta estrategia abian jartzeko. Batzar horretan egiten diren lanak maila goreneko ordezkari batean egiten dira, gure Geoparkea eta Euskal Herria munduan zehar geologia arloan. Hauek izan dira 2021ean egin diren lanetako batzuk:

- IUGS - ICS koordinazio orokorra eta goi-mailako ordezkari nazioarteko hainbat erakundetan (UNESCO, IUCN, ProGeo, GSA...)
- IUGS Desktop assesment for aspiring UGGP lantaldearen zuzendaritza. Lantalde honetan geoparke berrien nazioarteko interes geologikoa neurtzeko metodologia lantzen ari dira.
- IUGSek 2021ean egindako 15 geoparke berrien ebaluazioen koordinazioa eta zuzendaritza
- Hacusen Tedorigawa. Japan. Geoparkearen ebaluazio geologikoa.
- IUGS – ICG lehen bilera Zumaian.

4.3 - KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

Geoparkearen lehentasunezko gai bat da komunikazioa, on eta off line. Prentsa oharrak, medioetan agerraldiak, newsletter elektronikoak, web guneko albisteak, sare sozialak gestionatzen ditu Geoparkeak, antolatzen diren ekitaldiei ahal den etekin handiena ateratzeko.

ON-LINE

Urteroko eguneraketak egin dira erreserba sisteman. Horrez gain, aurtan SEO hobekuntzak egin ditugu webgunean bilatzaileetan posizionamendua hobetzeko.

- 4 newsletter. Adibide batzuk: [1 adibidea](#), [2 adibidea](#)
- Webgunean 30 albiste kaleratu dira.
- Sare sozialetan gure presentzia indartzen jarraitzen dugu, eta erabiltzen ditugun hiru sareetako jarraitzaile kopurua modu organikoan igo da:
 - Twitter: % 25eko igoera

- Instagram: % 17ko igoera
- Facebook: % 6,2ko igoera
- Google Analytics: aurten, 2020arekin alderatuta, webgunearen trafikoa handitu egin da, bai webgunera egindako bisitetan, bai webgunea bisitatu duten erabiltzaileen kopuruan, eta marka historikoa lortu da webgunea sortu zenetik.



OFF-LINE

- 24 prentsa ohar.
- 12 irrati elkarrizketa, besteak beste, Onda Vascan, La Ser-en, Radio Euskadin eta Euskadi Irratian.
- 2 prentsaurreko: bisita gidatuen denboraldiaren irekiera eta Nautilus ikerketa gelaren inaugurazioa.
- 12 agerraldi telebistan, besteak beste:
 - EITB Albisteak (euskeraz eta gaztelera)
 - Historias a bocados, EITB
 - Paleontologia Dokumentala, BBCn
 - TBPI Frantziako telebista
 - Teknopolis, EITB
 - Nos echamos a la calle, EITB
 - “Ahoz aho” de ETB1, hamabostaldiko kolaborazioa
- Baleike Zumaiako herri aldizkarian aldizkako ekarpena Ingurumen eta Zientziaren atalean. Aurten, honako artikulua idatzi dira eta <https://baleike.eus/bereziak/izarren-hautsa> edizio digitalean topatu daitezke.
 - Bat-batean sumendia gure bizitzan
 - Mamua haragitu da
 - Karst eta haitzuloaren nazioarteko eguna Geoparkean
 - Biharamuna hari batean
- Debaberri Debako aldizkarian ere hiru kolaborazio egin dira:
 - Karst eta haitzuloaren nazioarteko eguna Geoparkean
 - Debako Flysch Beltza, geoparkeko zatirik zaharrena
 - Geoeskolak: geologia eta hezkuntza uztartzen dituen proiektua

Ekarpenak hemen topatu daitezke: <https://www.deba.eus/eu/udala/udal-aldizkaria>

KOMUNIKAZIO KANPAINAK



- Karst jaialdiaren berri emateko Deba ondoko herrietan publizitatea kontratatu genuen Elgoibar, Eibar eta Mutrikuko Lea-Artibaiko eta Busturialdeko hedabideetan.
- Donostiako DBUS autobusetan publizitatea kontratatu da uda honetan, hirira iristen den turismoa Geoparkera erakartzeko.
- Gipuzkoa Turismoak, Surf Channel TVrekin elkarlanean, [Gipuzkoa ezagutzera emateko egindako ataletako batean](#) parte hartu du.
- Sud Ouest Frantziako eskualde egunkarian publizitatea egin da, bai paperean bai online, inguruko merkatu frantseza erakartzeko asmoz.

EKITALDIAK: “KARST JAIALDIA: HARRIA ETA HERRIA”



Karst eta 2021eko haitzuloen nazioarteko urtea zela eta, Euskal Kostaldeko Geoparkeak [Karst Jaialdia antolatu zuen](#) Deban azaroaren 6an. Jaialdiaren helburua, flyscharekin egin den bezala, karstari ikusgarritasuna ematea da, flyschean agertzen diren dinamikak errepikatzen, hala nola, ikerketak, kontserbazio-ekimenak, hezkuntza- eta turismo-jarduerak.

Jaialdia Debako Zumardian izan zen, eta formatu berritzaile bat aztertu genuen herritarren parte-hartzea lortzeko. Hori horrela, jaialdi giroan antolatu genuen ekitaldia. Geoparkea osatzen duen taldeak koordinatu zituen programa, eragileekiko harremanak eta ekitaldiaren zabalkundea eta sustapena.

Ekitaldi eta hitzaldi guztiak harriaren eta karstaren ingurukoak izan ziren, ikuspegi desberdinetatik tratatuak. UPV/EHUko Arantza Aranburuk Karsteko paisaiari buruz hitz egin zuen, Xabier Peñalverrek eta Sonia San Jose, Aranzadi Zientzia Elkartekoak, kobazuloetako aztarnategi arkeologikoetara hurbildu gintuzten eta EHUko Iñaki Antiguedadek argi azpiko urei eta klima aldaketari buruz hitz egin zigun. Hitzaldien artean Iñaki Perurenak harriaren inguruan egindako bakarrizketa entzuteko aukera izan genuen, Arratzuko harri-zulatzaileren eta Karmele Gisasola harri-jasotzailearen ikuskizuna.

Ekitaldian Udane Juaristi artista izan genuen, Karstaren inguruko lan bat margotu zuena. Gastronomiarako lekua ere izan zen: Merkatu Txikia 8 posturekin, Goierriko taloak eta Txindurriturriko sagardoa.

Arratsaldean, bi irteera gidatu egiteko aukera eskaini genuen, Lasturko harrobira bisita eta Aixako kobazulora irteera espeleologiko bat. Bi irteerek 25 laguneko plaza mugatuak izan zituzten, izen-ematea formulario bidez egin zen eta plaza guztiak bete ziren.



Karst Jaialdia: Harria eta Herria ekitaldiak komunikazio lan handia izan zuen, irudi propioa diseinatu baitzen. Diseinua kontratatu eta hainbat euskarrilara egoki genuen: webgunea, sare sozialak, panelak, kartelak, kamisetak, egurrezko kuboak, etab. Gertuko komunikabideetan (Hitza, Kitto, etab.) publizitatea kontratatu zen.

Hedabideetan oihartzun esanguratsua izatea lortu genuen.

- [Diario Vasco](#)
- [Noticias de Gipuzkoa](#)
- [Barren.eus](#)
- [Facebook](#)
- [Laburpen bideoa](#) eta [programa](#)

Bestalde, azaroaren 5ean, **espeleologoek topaketa bat antolatu genuen Mutrikun**, Geoparkearen lurpea ezagutzeko baterako lanaren oinarriak jartzeko asmoz.

Geoparkea aztertzen ari diren elkarteak bildu ziren, lurraldean egiten ari diren lana ezagutzeko. Jardunaldiak arrakasta handia izan zuen, Euskadiko eta Nafarroako 60 parte-hartzaile baino gehiago bildu baitzuten. Jendea oso eskertuta agertu zen, ez baita oso ohikoa gai horri buruzko horrelako ekitaldiak antolatzea. Jardunaldi horren komunikazioa eta hedapena berezia izan da; izan ere, kartela PDF formatuan diseinatu genuen eta oso kanal zehatz batzuen bidez soilik zabaldu genuen, hartzaileengana erraz iritsi ginen eta erantzuna ona izan zen.

AZAROAK 5 DE NOVIEMBRE		EGITARIKUA - PROGRAMA
KOBAK: GEOPARKEAREN BIHOTZA CUEVAS: EL CORAZÓN DEL GEOPARQUE		
17:00	Espeleogénesis de las cuevas del Geoparque de la Costa Vasca <i>Martín Arriola Bengoas. UPV-EHU</i>	
17:15	Exploraciones a cargo del GERS AEM de Barcelona y de CEV en los últimos 40 años en el macizo de Izarraltz <i>Ignasi de Yzaguirre / Maura. GERS</i>	
17:30	Arnoko karste. Txikienetik handionera <i>Nerea Arizabalaga Luzertua. BARRUMENDI ESPELEOLOGIA TALDEA</i>	
17:45	El sistema Ermitia - Aixa - Ibarrengo: estado actual de las exploraciones <i>Candido Garcia. FÉLIX UGARTE ELKARTEA</i>	
18:00	El montículo de Aizkoitzo <i>Evaristo Rodríguez Ribano. MORRAIKOKO LEIZARPE ESPELEOLOGIA TALDEA</i>	
18:15	Mapa unificado de las cuevas del Geoparque Mundial de la UNESCO de Montañas de Coirel <i>Daniel Ballesteros. Geoparque Mundial de la UNESCO Montañas de Coirel</i>	
18:30h-19:00	Geoparkeko espeleologiarako lankidetzak (lidoak eta otorkitonetako arrotak) buruzko galderen eta azalpenen trantsa <i>Tirna de preguntas y debate sobre líneas de colaboración y retos de futuro para la espeleología en Geoparkea</i>	
Atsedena - Descanso		
LUR AZPIKO ERRALDOIAK GIGANTES DEL MUNDO SUBTERRANEO		
19:30	Euskal Pirinioak 1.000 metroko sakoneran esploratzen <i>Joan Ceberio. LARRA 2021 ESPELEOLOGIA-KANPAINAKO KOORDINATZAILEA</i>	
20:00	Espeleología y ciencia en lo más profundo de los Picos de Europa <i>Daniel Ballesteros. Geoparque Mundial de la UNESCO Montañas de Coirel</i>	
20:30 - 21:00	Galderak - Turno de preguntas	

5.ARDATZA: TOKIKO GARAPENA ETA IRAUNKORTASUNA

5.1 - LEHEN SEKTOREARI BULTZADA

- **Geogourmet saskien salmenta**, lurraldean ekoiztako tokiko gastronomiaren balioa nabarmentzeko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile bereberekin eta hiru turismo-bulegoetako salmentarekin jarraitzen da, prezio berean.
 - Txakolina: Sagarmíña eta Flysch
 - Gazta: Goienetxe
 - Atun kontserba: Zizzo eta Nardín
- *Karst: Harria eta Herria jaialdiaren* barruan, bertako produktuak bultzatzeko **Merkatu txikia** antolatu zen. Bertan bi gazta postu, hiru barazki postu, sagardo postu bat, kosmetika naturala, ezti eta eskuz egindako harrien beste bat izan ziren.



5.2 - GEOPARKEZALEAK

Geoparkezaleak proiektua edo [entitate laguntzaileen sarea](#) Euskal Kostaldeko Unesco Munduko Geoparkearen inguruan topagune ireki eta parte-hartzaile bat sortzeko helburuarekin sortu zen.

Turismoaren arloko erakunde laguntzaileekin lanean jarraitzen da, aldizkako bilerekin, baina aurten, egoera dela-eta, jarduera geldituta egon da. Une honetan 23 enpresa daude sarean. Sei erakunde berrik pasa dute ebaluazioa, eta, beraz, sarean sartu dira. Une honetan 23 enpresa daude sarean.

Bestalde, 2018tik sarea osatzen zuten 19 enpresen jarraipeneko bi urteko ebaluazioak egin dira. Enpresa horiek 2020an egin behar ziren, baina atzeratu egin ziren pandemiaren ondorioz.

Formakuntzari dagokionez, Ekoturismo Klubak formakuntza irekiko bi saio egin ditu enpresentzat, eta Geoparkearen entitate laguntzaileek parte hartu dute saio horietan.

Ekainean ekoturismoko prestakuntza bat egin zen Euskadiko ostatu-enpresei zuzenduta, eta abenduan turismo zerbitzu enpresei zuzendutako prestakuntza bat egin da.

Irailan Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Basquetourrek parte hartu zuten entitate kolaboratzaileentzat antolatu genuen bilera/jardunaldi batean. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jon Zulaikak udan onartu zen *“Deba-Zumaia itsasertzeko biotopo babestuaren erabilera publikoko plana”*ren xehetasunak azaldu zizkien bertaratutakoei. Bestalde, Basquetourreko Iker Urcelayk Ekoturismoaren inguruan eta Ekoturismo Klubarekin Basquetourrek egiten duen lana azaldu zuen.

5.3 - EUROPAKO GEOPARKEEN ASTEA

Urtero bezala, aurten [Europako Geoparkeen Astearen 12. edizioa](#) ospatu da. Ekimen hori gaur egun Europan dauden UNESCO 88 Munduko Geoparkeetan garatzen da, herritarren artean geologia- eta natura-ondarearen kontserbazioa eta sustapenari buruzko kontzientzia handiagoa sortu eta ezagutarazteko.

Edizio berri hau maiatzaren 25etik ekainaren 6ra bitartean egin zen, "Karst & Caves" izenburupean, Euskal Kostaldeko Geoparkea. Geologia-, kultura- eta natura-ondarearekin lotutako jardueraz betetako [programa](#) bat izan zen ardatz nagusia: espeleologia-irteera bat, Geoparkean garatzen ari diren ikerketa-proiektuetako bati buruzko hitzaldi bat, mendi-irteerak eta Nautilusen ate irekien jardunaldiak, besteak beste. Guztiek plaza mugatuak izan zituzten, egoera zela eta.



Jarduerak:

- Geoparkeen Foro Nazionalak antolatutako **online saioa** “Todo lo que quisiste saber sobre los geoparques”
- **Hitzaldia** “Geoparkeko kultur paisaiak ikertzen: giza jardueraren aztarnak historian zehar”, Josu Narbarte eta Eneko Iriarteren eskutik, 2020-2021ean ikerketa sustatzeko laguntzen deialdian hautatuak.
- **Familiantzako orientazio-proba**. Helburu bikoitza zuen zirkuitu bat antolatu zen: orientazio-kirola sustatzea eta Geoparkeko ondare naturala ezagutaraztea.
- **Irteera espeleologikoa**. Hasieran Aixako haitzulora joatea aurreikusita bazegoen ere, azkenean bertan behera utzi zen eta, horren ordean, **Ermittiarra irteera** bat antolatu zen. Geoparkeak ezkutatzen duen lur azpiko mundua ezagutzeko jardura paregabea.
- **Nautilus ikerketa eta didaktika gelarako ate irekiak**. Gune berria ezagutzera emateko ate ireki jardunaldiak antolatu ziren, Geoparkeko ondare paleontologikoa herritarrengana hurbilduz. Bertan, Mutrikuko Flysch Beltzaren itsaslabarretatik Jesus Maria Narvaez bildumagileak eta Esperanza Azkarraga emazteak ateratako 150 ammonite erraldoien bilduma gordetzen da.
- **Irteera gidatua: Goienetxe gaztandegia: Karsteko zapoak**. Irteera gidatua Olatz bailararen ezaugarri bereziak ezagutzeko, Goienetxe baserria bisitatzeko euskal baserri tipikoaren adibide gisa, gazta egiteko prozesua ezagutzeko eta azkenik dastatzeko.
- **Mendi ibilaldi gidatua Arbil mendira**.

